

eskola kanpin-denda batean


Errefuxiatu-esparruetako hezkuntzaren aldeko kanpaina



Arkerak
Sortzen

ALBOAN

Jesuitek sortu eta bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA S.J.



ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA S.J.

"Etocean, arotza nintzen. Eguneroko bizitzan erabiltzen diren gauzak egiten nituen. Baina, duela hiru urte matxino eta miliziek dena suntsitu zuten, nire herririka sutu zutenean, Irad ekialdeko "Sila" eskualdean.

hire familiak eta nik ihes egin genuen.

Orain, suntsitu ezin daitekeen zerbait eraikitzen dut: ezagutza.

Abdallah Soulymane Mohamamad da nire izena. Iradeko barne-deplazatuentzako "Aradik 1" kokalekuko lehen hezkuntzako eskolako irakasle eta zuzendaria naiz.

Erefoziatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren (JRS) laguntzarekin komunitateko irakasle izateko prestatzen hasi nintzen. hire herririkan ez nuen aukerarik izan eskola bukatzeko, eta hasieran esperientzia arraroa egin zitzaidan hura.

Hezkuntzak hilde egokia erakutsi dit. Kontzientzia irabazi dut, eta toki bat gizartean. hire seme-alabek nik izan nuen aukera izatea nahi dut orain.

Sag, "Aradik"eko umeei ikasturte oso bat burutu zuten lehenbiziko aldiz. JRSren laguntzarekin guraso-elkartek eta irakasleek eskolak eraikitzen eta mantentzen lagundu zuten, horniketak kanatzen eta langileei buruzko erakarkiak hartzen.

Hezkuntza kultzatzen hasi zirenetik aldaketa handiak ikusi ditut komunitatean. Errespetua dago, Jendeak elkar entzuten du, eta batera egiten du lan. Gizartearen berreraikitzen duten garrantziaren jakituen egin dira".

A young girl with dark skin and braided hair is walking barefoot on a dry, dusty ground. She is carrying a baby on her back, wrapped in a white cloth. She is wearing a white long-sleeved shirt and a red skirt. An orange headscarf is draped over her head and shoulders. The background is a vast, arid landscape with sparse vegetation and a clear sky.

ihesa... bixitza salbatzeko.

Egunero, lagun askok beren etxeak, komunitateak edo herrialdeak utzi behar izaten dituzte. **Munduan 12 milioi errefuxiatu eta asilo-eskatzaille daudela uste da.** Gehienak Afrika, Asian eta Ekialde Ertainean daude.

Baina, horretaz gain, pertsona askok mugak zeharkatu ez arren, beren etxe, herrixka eta herriak utzi behar izaten dituzte. Desplazatuak dira. Gaur egun, **derrigorrean desplazatutako 50 bat milioi pertsona daude;** hamarretik zortzi emakumeak eta haurrak dira. **50 milioi pertsona errefuxiatu horien erdiak Afrikan daude.**

Horietatik ia erdiak adingabeak dira. Haur eta nerabe hauek arrisku handia dute sexu-esplotazioa, pertsonen salerosketa, esklabutza, bortxazko lana edo hezkuntzarako sarbiderik eza jasateko.

Ihes egiteko arrazoiak askotarrikoak dira: **jatorri etniko, erlijio edo ideia politikoengatik jazarpenera, edo gerra eta bortxakeria.**

Herri osoek gatazka armatuak eta jazarpenera jasan dituzte, eta bortxakeriagatik ihes egin behar izan dute.

Beste pertsona batzuk ihes egiten dute haiek eta beren familiek murrerako pobrezia egoera bizi dutelako, eta toki horretan bizirik irauterik ez dutelako.



herkuntza-eskubidearen urraketa

ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA S.J.

Pertsona horiek Errefuxiatu-esparruetara iristen direnean, bizimodu zaila eta giza eskubide ugariren urraketa aurkitzen dituzte:

- Segurtasun eta egonkortasunik eza.
- Laborantzarako lurrak erabiltzeko zailtasunak
- Osasun, elikadura, hezkuntza, eta etxebizitza-zerbitzuetarako sarbiderik eza.
- Hezkuntza-azpiegitura eskasak, eta irakasleentzako baliabide gabezia.

Urratutako eskubide horien artean, hezkuntzarena azpimarratu nahi dugu, **bizitzaren errekerperazio eta normalizazio-prozesuan duen eraginagatik**. Hezkuntza ezinbestekoa da pertsonen eta herrien garapenerako. Pobreziaren eta desberdintasun sozial, etniko eta sexualaren indize handienak hezkuntza-eskubidea urratzen den planetako tokietan gertatzen dira.

ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA S.J.

Errefuxiatu-eremuetan faktore hauek mugatzen dute hezkuntza-eskubidea:

- **Eskola-azpiegiturarik ez dago**, eskolak ez daude hornituta eta irakasleak falta dira, eta/edo ez daude prestatuta.
- **Eskola-desertzio eta -absentismo** handia dago.
- Esparrutan bizi diren biztanleek hezkuntzaren garrantziarekiko **sentsibilitaterik ez dute**; batez ere nekatoen hezkuntza gutxiesten dute.
- **Eskolak kudeatzeko gaitasun-gabezia** dago, eta **guraso-elkarteen partaidetza eskasa** da.



ner da eskola kamin-denda batean?

Helburu hauek dituen hezkuntza-proposamena da:

1. **Hezkuntza-komunitatea (irakasleak, ikasleak, familiak eta zerbitzuetako langileak) sentsibilizatzea**, konturatu daitezen milaka pertona baztertuta eta hezkuntzarako eskubiderik gabe bizi direla errefuxiatu-esparruetan.
2. **Injustizien aurrean herritar** gisa izan behar dugun ardura-zentzia garatzea.
3. **Konpromiso aktiboa izatea**, denon artean egoera horiek alda ditzakegula ulertuta.



ARGAZKIAK: DANI VILLANUEVA SJ.



neri dago errefuxiatu?

Batez ere ikastetxeetako irakasleei, ikastetxeak errefuxiatuen hezkuntzaren aldeko lanean inplikatu daitezten.

neri dago errefuxiatu?

ALBOANek — Jesusen Lagundiak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan duen garapenerako GKEak— eta **Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak (JRS)** — errefuxiatuak artatu, zerbitzatu eta haien eskubideak defendatzen dituen nazioarteko erakundeak—.

Jesunen Lagundiak sustatutako bi erakunde hauen helburua da **justizia eta bizitza duina pertsona guztien**, besteak beste, errefuxiatuen eta desplazatuen, ondare izango den mundu bat eraikitzea.

Errefuxiatu-esparruetan eta barne-desplazatuen kokaguneetan hezkuntza-proiektuak gauzatzea da **ALBOANen** eta Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuen xedea. Gatazka armatuen ondorioak jasan dituzten pertsonen kalitatezko hezkuntza izatea da bi erakunde horien helburua honako programa hauen bitartez: lehen eta bigarren hezkuntza, pertsona helduen alfabetatzea eta irakasleen prestakuntza.

Azken urtean, **mundu osoko 25 herrialdeetako 285.000 gazteri eman zizkien hezkuntza-zerbitzuak JRSk**.





nola parte hartu?

1. Errefuxiatuei eta desplazatuei buruz gehiago jakinez:

Txosten didaktiko bat eskaintzen dizugu. Bertan hezkuntza-eta-pa guztietarako (hur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza) jarduerak aurkituko dituzu.

2. Gure inguruneari pertsona errefuxiatu eta desplazatuen egoeraren berri emanez.

- Ikastetxean irudi eta posterrak jartzen.
- Familiak errealitate hori ezagutzera gonbidatzea. Horretarako, gutun edo artikulu bat idatz dezakezue lantzen ari garen proiektua azaltzen.
- Eskolaz kanpoko jarduera bat antolatzea (erakusketa, bideo-foruma, hitzaldia...) errefuxiatuen egoeraren berri ematen.

Ekimen horiek gauzatzeko ikastetxe barruan talde txiki bat antolatu dezakezue, sentsibilizazio-kanpaina bat bultzatzeko. Horretarako, **ALBOANek** utzitako materiala eta laguntza dituzu.

3. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua babesteko ekintza zehatzak bultzatzea:

- Ikastetxean, proiektu jakin baterako dirua biltzeko kanpaina bat sustatzea. Proiektu horri buruzko informazio xehatua emango dizuegu.
- Ikastetxeko gela bati proposatzea "Pedro Arrupe Award" nazioarteko lehiaketan parte hartzea (bi urtetik behin).
- Familiei proiektu jakin batean parte hartzeko gonbita egitea.

Parte hartu nahi baduzu, jarri harremanetan **ALBOANeko taldearekin** hurbilen duzun egoitzan. Deitu, idatzi, hurbildu edota **gure web-orrian dugun informazioa kontsultatu: www.alboan.org** (kanpainen atala). **ALBOANek** proiektua zure ikastetxean abian jartzeko laguntza eta baliabideak emango dizkizu.

Animo, zure zain gaudel!

ARGAZKIA: DANI VILLANUEVA SJ.

IRUÑEA

Barañain Etorbidea, 2
31011 - Iruñea
Telefona: 948 231 302
Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

BILBAO

Aita Lojendio, 2 - 2.
48008 - Bilbao
Telefona: 944 151 135
Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

DONOSTI

Ronda Kalea, 7 - 4. I
20001 - Donosti
Telefona: 943 275 173
Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

GASTEIZ

Monseñor Estenaga, 1
01002 - Vitoria-Gasteiz
Telefona: 945 202 676
Faxa: 945 202 676
alboanar@alboan.org